

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak pozik eta asetuta mantenduko ditugu, ditugun bezeroak mantentzeko eta berriak lortzeko. Gure balorazio positiboek esker, jendea gurekin ongi asetuta egotean, balorazio positiboak helaraziko dizkiote beste pertsoneri, bezero gehiago erakarrit. Gure txamarrak alokatzen dituzten pertsonak motibatuta mantenduko ditugu, denborarekin salmenta kopurua handituz joan dadin. Atseginak izango gara haiekin, beren arazoak konpontzen ahaleginduko gara eta beren beharretara egokitzen saiatuko gara uneoro, laguntzeko prest agertuz edozer gauza behar izango balute.

Bezeroak gure webgunean (<http://ihiruene.1apps.com/>) gurekin kontaktuan jarri ahal izango dira, baita telefono bidez ere. Bertan, laguntza pertsonala eskainiko diegu eta edozein zalantza kontsultatzeko aukera izango dute, guri buruzko informazioa eskuragarri izango baitute.

Gainera, bezeroek beraien proposamenak azaltzeko atal bat edukiko dute gure webgunean. Atal honetan, gure bezeroen proposamen oro kontuan hartuko dugu, gurekin erosoago aurkitu daitezten eta gure negozioa handituz joan dadin. Horrez gain, noizean behin proposamen-orriak banatuko ditugu bezeroen artean, bertan beraien ideia guztiak jarri ditzaten.

Bestalde, bezeroak gure alokairuarekin erosoago egon daitezten, enpresaren irabazien %20 minbiziaren ikerketan laguntzeko emango dira, honek jendearengan interes handiagoa sortuko du eta bezeroekiko harreman estuagoa izango dugu.